

ALTUNA M. PILAR Santalde-Pieitos Buzoian

BERKIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, martxoak 31




Itxaropenaren telefonoa

Autoberezi



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75



AROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonoa eta Faxe: 76 54 91

ZABALDU BERRIA!!
ZATOK GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA

Altzarien dekorazio eta erakusketa

• *Betiko leihoak gaur egungo teknolojiari egokituta*

• *Ez hotzik, ez zaratarik, ez urik!!*

• *Leiho termoakustikoak*

• ATEAK

• ARMAIRUAK

• EGURREZ EGINDAKO LANAK

ARGALDU!!!

ORDENADORE BIDEZKO SISTEMA BERRIA

JAKIN NAHI BADUZU:

- ZER grasa portzentaia duzun
- ZER muskulu-masa portzentaia duzun
- ZER likido (erretentzioa) portzentaia duzun



NOVA LINEk hori guztia jakiteko

aukera eskaintzen dizu

Eska ezazu txanda HURBIL dietetikan!!

HURBIL DIETETIKA. Telesforo Aranzadi, 2 ☎ 76 30 08

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tinoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.
Mesterreka, 13 Bergara.
Tinoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola
Maripi Laskurain

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez

Banaketa:

Triantxangorri taldea

Tirada:

3.800 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


JUANTXO MADARIAGA Kapirixo Elkarteko presidentea

- Noiz hasiko zarete eremu megalitiarrak seinalizatzen?

- Ba dirulaguntzen zain gaude. Udalak dagoeneko 300.000 pta.ko dirulaguntza eman digu baina ez da nahikoa. Aste honetan Diputazioan izan gara eta beraien erantzuna jakin arte ezin dugu ezer esan. Gu-txienez beste milioi bat lortzea komeni zaigu jarri nahi ditugun panelak oso garestiak baitira. Bestela ez dago gastu askorik, auzolanean egingo baitugu. Azkoitia, Plaentxi eta Bergara artean (Karakate inguruan) diren 16 eremuak (tumulo, trikuharri eta dolmenak) seinalizatuko asmoa daukagu.

- Fetxarik ez dago beraz...

-Diputazioaren laguntza



konfirmatuz, gero berehala hasiko ginasteke. Xabier Larrañagak proiektua landu du dagoeneko. Inguruaren garbiketa egingo da lehenbizi, gero nabaritu, panelak jarri eta ibilbide didaktiko bat markatu, jendeak ikusi dezan. Oso modu ilustratiboan egin nahi dugu. 20 bat lagun auzolanean hasteko prest gaude.

"Karakate inguruan diren 16 eremu megalitiarrak seinalizatu nahi ditugu"

I T U R R I O N E T I K

Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren hirugarren edizioa apirillean

Taun-Taunek zehaztu du dagoeneko apirilaren 27tik 30era gure herrian izango den Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiko programazioa. Hirugarren edizio honetan Mexiko, Italia, Frantzia, Kataluina, Madril eta Euskal Herriko 11 talde izango dira. Ostegunetik igandera bitartean 13 emanaldi eskeiniko dira kalean (Frontoian eta Plazan), Zabalotegiko aretoan, Kartzela Zaharrean edota Pol-Polen. Era berean Kultur Etxean "35 años de títeres cubanos" izeneko erakusketa ikusgai izango da. Inaugurazio ekitaldian Juan Martin Elexpuruk pregoia irakurriko du eta jarraian Taun-Taunen "Austin FX-4" bideoa estreinatuko da.

E S A N D U T E

"Ahozko hizkuntza eta keinuena osagarriak dira eta gorren arteko komunikazioa aberastu egiten dute"

**IÑAKI
MADINABEITIA**
Gorren irakaslea
KONTZEJUPETIK

"Edadetuek arazoak izan ditzakete norberak gasolina hartu behar duen gasolindegietan eta ondo legoke gazteren bat laguntzeko prets egotea. Bestela, gasolina merkeagoa izan beharko litzateke azken batean kostuak txikiagoak baitira"

AITOR ZABALETA
Gidaria
EUSKADI IRRATIA

"Politikan, izurriterik pozoitsuenetan bezala, krisialdiak ahulengan nabari dira gordintasun osoz. Bateratze garaitik bi urte pasa direnean ere, EEko militante ohiek, beren proiektua hondoratu eta felipisten flota garailera pasa zirenen depresioa jasaten dute"

MARTIN GARITANO
Kazetaria
EGIN



**FRANKENSTEIN
DE MARY SHELLEY**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



**LA HISTORIA
INTERMINABLE 3**

Igandea: 11.30.



LA MACHINE
Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Kenneth Branagh** zuzendari ingelesak (*Enrique V, Los amigos de Peter*) Frankensteinen mitoa berreskuratu du bere azken filmean. *Victor Frankenstein* (**Branagh**) heriotzari engainatzeko metodoaren bila ari da etengabe lanean bere laborategian. Gau batean bere esfortzuek emaitza izango dute baina berak sortutako kriaturak (**Robert De Niro**) terrorea sortaraziko du. **Helena Bonham Carterekin**.

▼▼ **Michael Ende** idazlearen nobelan eta aurreko bi zatien arrakastan oinarritzen den filma. Fantasiako erreinuan pertsonaia benetan bitxiak aurki ditzakegu: hitzegiten duten zuhaitzak, gnomoak, dragoi hegalaria... Benetako errealitatera itzuli aurretik, *Bastianek* hainbat abentura biziko ditu bertan.

▼▼ *Marc* izeneko psikiatra batek (**Gérard Depardieu** aktorea) psikopata baten buruan ezkututzen diren sekretuak jakin ahal izateko makina bat asmatuko du. Hiltzaile baten burmuinean sartzea lortuko badu ere, ezin izango du bertatik irten eta izaera trukaketa gertatuko da hiltzaile (**Didier Burdon**) eta psikiatraren artean. Honek ekintza beldurgarriak eragingo ditu.

Deiak

▼ **Eusko Alkartasuna.** Apirilaren 16an Aberri Eguna, Iruñeara joateko autobusak. Izen-ematea Alkartetxean (76 26 81 telefonoa).

▼ **Odol ateraldia.** Asteazkenean, hilak 5, 7etatik 9etara Seminarioko bajuetan. Jendeari parte hartzeko dei egiten zaio.

▼ **Euskal Pelotaren** erakusketak igandera arte Kultur Etxean.

▼ **Hirugarren munduari** launtzeko astea Antzuolan. Asteartean 7etan Imanol Larrearen "*Gosea munduan*" hitzaldia Udal Aretoan eta asteazkenean Askapenaren "*0, 7a, bai, ez...?*" ordu berean.

▼ **Akanpada.** Apirilaren 13tik 17ra Zurizan. Argibideak Pol-Polen edota 76 48 51 telefonoan.

Ogia

▼ **Igandea 2:** Konde.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 31:** Mozos/Azkoaga.
- ▼ **Larunbata 1:** Camacho.
- ▼ **Igandea 2:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 3:** Puy.
- ▼ **Asteartea 4:** Guallar.
- ▼ **Asteazkena 5:** Estella.
- ▼ **Osteguna 6:** Mozos.



zumelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

GURIDI altzariak

**Era guztietako
altzariak**

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

Aste antimilitarista

BOTAk antolatuta eta larunbat honetan hasita, antzerki saioa, rock jaialdia, zinea...

BOTA talde antimilitaristak I. Aste Antimilitarista antolatu du bihar larunbatetik apirilaren 8ra bitartean. Jesus Mari Kalboetxeaga BOTako kidearen hitzetan, "balore antimilitaristak indartu eta intsumisioari publizitate pixkat emateko asmoz antolatu ditugu ibardunaldi hauek. Aldi berean, BOTari bultzadaxo bat eman nahi izan diogu, azkenaldian nabiko geldirik egon baita eta leben edizio boni burrengo urteetan jarraipena ematea da gure asmoa".

Bihar, goizeko 11.30etan, hainbat artistak muralak margotuko dituzte Plazan. Bertan, besteak beste, Dani Laskurain, Bingen De Pedro, Riki Azkaragorta eta Manu Muniategi bergararrak eta Carmen Salgado peruarrak parte hartuko dute. Era berean, BOTako partaideek "Ez mili, ez zigor, ejerzitoei gogor" lemapean pankarta bat margotuko dute. Musika entzun eta sagardoa eta pintxoak hartzeko aukera ere izango da. Ondoren, panelak, jarriko dira herriko hainbat tokitan. Gauean, berriz, 10etan, "Herminio y Miguelito" izeneko antzezlan izango da Mariaren Lagundian. *Sobradun* talde gasteiztarrek Mauro Entrialgoren pertsonaia ego-



Soldaduzkaren aurkako hainbat ekitaldi iragarri dira aste honetarako.

kitu du antzerkira. Sarrerak 500 pezetatan jarriko dira salgai.

Astelehenean, apirilak 3, "Camino de Wolokolamsk" kafe antzerkia izango da Pol-Polen 8etan Ur taldeko Victor Criado eta

Mikel Aitor Telloren eskuetik. Ondoren Xabier Labaienek sintetizadore emanaldi bat eskeiniko du.

Asteartean Oscar Otxoak Gasteizeko Irudi Zentruaren laguntzaz eginiko "La tropa insumisa" bide-

oa emango da 7.30etan Kultur Etxean. Dokumentala ikusi ondoren "Benetako gastu militarra" gaiari buruz berba egingo dute Gasteizkoak taldeko partaideek. Besteak beste, Euskal herriko industria armamentistikoa, gastu sozialen murriztea eta industria militarren konbertsioa aztertuko dira.

Ostegunean, hilak 6, zine-klubean peikula antimilitarista bat emango da 8etan Novedadesen eta ostiralean, hilak 7, *The All-nighters* musika taldeak kontzertua eskeiniko du 11etan Pol-Polen.

Amaitzeko, larunbatean, hilak 8, parodia antimilitarista egingo da herriko kaleetan eta gaueko 8etan zerbitzu militarren eta Ordezko Zerbitzuaren aurkako manifestazioa Plazan.

Ihardunaldiekin batera 16 orrialdeko aldizkari bat kaleratuko du BOTAK. Errebista herriko hainbat tabernatan eta kaletan eskuratu ahal izango da eta ihardunaldien aurrekontuari aurre egiteko borondatea eskatuko da aldizkariaren truke.

Ihardunaldiekin batera, 16 orrialdeko aldizkari bat argitaratuko da

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behe

☎ 76 21 65 / 76 24 45

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behe ☎ 76 55 00

Jatetxea

ELA Bergara Herri Baturaren adierazpena

Egun gutxi dela, bergarar baten kotxeari -ertzaina bera-, norbaitek su eman zion, he mentxe bertan, Bergarako Fraiskozuri enparantzan.

ELAko Herri Batura afektatua sentitzen da gertakizun honetaz. Lehendabizikoz, ertzainen artean sail handi bat Sindikatu honetan afiliatuta dagoelako, beraz, langile bezala defendatzen ditugu; ertzainek, langile izanik, beraiekin zerikusirik gabe lan mundua sarri erasotzen duten zirkulu batzuen esanera mugitzen den jendeinguruaren diskriminazioa jasaten bait dute.

Bigarrenkoz, Sindikatu hau izan behar delako, -eta neurri batean bada-, zutabe nagusietariko bat Herri honen berrakuntzan, eta horrelako gertakizunei gizarte arduratasun ikuspegitik aurre eman behar dielako.

Ertzantza abertzale mugimenduak aspalditik desio zuen erakundea da, eta betidanik erreibindikatu; beste edozein polizia antolakunde bezalaxe, legez kanpoko eta gizabidearen aurkako jokaerak zanpatu behar dituen aitzakian erasotzen duena ez da abertzalea, alferrik esan. Indarra etengabe sistematikoki erabiltzeak zaletasuna sortzen du, edozein politika printzipio eta proiektu konkretutik urruntzen duen grina. Esanak bidezko edo ez, barrenerago datza aztura, ohitura okerra, senaren desbideratzea, erabakiak itzalean hartu eta sarraskian ekin.

Ertzain baten kotxea kiskaltzeak Bergaran ez du zerikusirik autodeterminazioarekin, ezta independentziarekin ere, indarkeriazaleen esanezinezko frustrazioen mendeku

lasaigarria besterik ez da, ustelkeria eta, erakunde barrenetik edo kanpotik, egiten diren botere gehiegikeriekin kidesun gehiagoko duena. Gaur egungo egoera politikoan bakeaz hitzegitea ez da nahiko: nahi izan behar da bakea.

BERGARAKO ELA

Egizanen "erretolika"

BERRIGARAREN martxoaren 24eko alean, Egizan emakume taldeak Bergarako alderdi politikorik gehienek berak antolatutako hitzaldian ez agertzea salatu zuen. Baita ni neu izen-abizenek aipatu ere.

Egizan taldea hasi zen esaten bere karpainaren inguruko hitzaldian parte har genezan "gonbidatu" gintuela eta amaitu zuen ez genuela "konpromesua" bete esaten. Nonbait Egizanez Bergara herriaren zibiltzat du bere burua, nahastu egiten bait ditu bere gonbidapenak eta bestean konpromeszuak.

Emakumeak gora eta emakumeak behera, emakumeen onetan ari delakoan, Egizanez era bereiziz tratatu nahi gaitu emakumeok. Zenbait emakumek uste dugu, ordea, emakumeok pertsona garena, pertsona moduan lan egin behar dugula, eta normalizat tratatzen ez gaituztenak normal tratatu gaitzaten guk geuk ahalik eta normalean jokatu behar dugula.

Azkenik, erabat lotsagarri iruditzen zait Egizanez ateratzen duen ondorioa. Sinestaraizi nahi digu bete talde hori independenttea dela, alderdi politiko guztiak gonbidatuak izan zirela bakoitzak bere programa erakus

zezan, eta Egizanez emakumeak gonbaratzeko aukera izan zezaten. Ez dutena esaten zera da: Egizan MVLN delakoaren barruan ari dela, KASEkin lotura organikoak duela, eta bere aukera politikoa ez dagoela beste alderdiek zer esango dutenaren zain, aspaldi erabakia dute eta. Horregatik, hain zuzen ere, ez diot nik behintzat Egizan taldeari Bergarako emakume guztien ordezkariarik onartzen. KASEk KASEko emakumeak ordezkatzeko dituzte, ez behar bada gutxiago, baina ezta gehiago ere. Eta Bergarako emakumerik gehienok sigla horietatik kanpo gaude.

KONTXI IRIZAR EAKO ZINEGOTZIA

Udaletxeko erakusketa

Alkate jauna, gu institutuko 2. kurtsoa ikasle batzuk gara eta ez gaude ados udaletxea ikusteko ipini duzuen epearekin.

Orain dagoen epea oso motza iruditzen zaigu; Bergaran egin diren obrak edo egingo direnak hobeto ezagutzeko ondo egongo litzateke udaletxeko barruko gehiago erabiltzea. Horretarako urtean zehar egun berezi batzuetan edo gutxienez astean behin ordu bat edo bi irekita egotea proposatzen dugu.

Gure herritik urrunegi bizi den senitateko edo lagunak pozik egongo lirateke obra hauek ikusteko aukera izango balute. Guzti honengatik eskatzen dizugu ohar honetan ipini dizuguna praktikan jartzea eta segurueenez jendeak eskertuko lizuke.

AITOR PINEDA/DIEGO MURILLO

Tiira biraka



◆ **JARDUNeko Batzarra**

Asteazkenean, hilak 5, Jarduneko Batzar Orokorra izango da 7etan Masterreka 13ko lokalean. Beste gai batzuren artean Zuzendaritza Batzorde berria aukeratuko da.

◆ **Oldartzen**

Bihar larunbata Oldartzen prozesuaren beste bilera bat izango da goizeko 10etan Arrano Zaharrean. Udal hauteskundeetarako zerrendaren onarpena eta Oldartzen prozesuaren enmendakinak aztertuko dira.

◆ **Hauteskundeak**

PSE-EEK Udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du. Alvaro Esparza, Javier Cendoya, eta Marino Millan dira lehen hirurak. EAJn, berriz, oraingo zinegotziek hartuko dituzte lau lehen postuak, Xabier Gallastegi ez da aurkeztuko eta Herzog, Eginio eta Aperribai EEko militante ohiak aurkezten ditu.

Legealdiko azken ohizko plenoan gai ugari aztertu zen

Ertzain baten kotxearen kontrako eraso eta Senideaken mozioaren testu alternatiboa tartean

Ohizkoa baino luzeagoa (2 ordu t'erdi) eta mamiuagoa izan zen legealdiko azken ohizko plenoa. Kultur Etxeko aretoa jendez gainezka zegoelarik, alderdi guztiek lehenbizi Josean Lasa eta Joxi Zabalen auziaren inguruko idatzi bat onartu zuten. Bertan jasotzen denez, *"Une latzak pasatzen ari da Gipuzkoa. Josean Lasa Arostegi eta Joxi Zabala Artano torturatuak eta erabilak agertu dira Alicanteko hilerrian orain 12 urte Euskal Herriko Iparraldean desagertu ondoren. Gerra eta gatazka guztiak amaitzea amesten dugu. Bereziki euskaldunok jasaten ditugun gatazkak konpontzea nahi dugu. Eta hori neurri bategan, guztion esku dago"*.

Ondoren, alderdi guztiek, HBk ezik, aurreko astean herriko ertzain baten kotxearen kontrako atentatua salatu zuten. Jesus Mari Garitanok (HB) zera adierazi zuen: *"gure ustez biolentzia hau beste biolentzia baten aurkako biolentzia da. Herri bat gara eta eskubide bat ukatu egin zaigu: autodeterminazioa. Ikusi egin beharko litzateke non dagoen biolentziaren sustraia"*.

Jarraian Senideakek euskal presoena eta bereziki Coruñaeko espetxean dagoen Mikel Osa preso bergararraren inguruko mozioa aurkeztu zuen. Kristina Elkorok eta Patxi Osak, Mikelen anaiak,



Jendez gainezka izan zen Kultur Etxeko aretoa asteazkenean.

azaldu zuten, *"egoera jasanezina da, kartzelan ez baitira giza eskubideak inondik inora errespetatzen"*. Alkateak adierazi zuen EAJ eta PSE-EEK mozio alternatibo bat aurkezten zutela, bertan presoena denuntziak jasotzea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeari bidaltzea, jesterien jarraipena egiteko zinegotzi bat izendatzea eta presoak inguruko kartzelatara ekartzea beren eskubide indibidualak errespetatuz jasotzen zen. Juan Mari Garitanok (EA), berriz, esan zuen bere alderdiak bergarar preso guztien egoeraren jarraipena Udaleko zerbitzu sozialek egitea eskatzen duela. HBk Senideakek aurkeztutakoren botatzea eskatu zuen. Azkenean EAJ eta PSE-EEren mozioa aztertu zen eta berau onartu zen, HBk

kontrako botoa eman eta EA abstenitu egin zelarik.

Bestalde, HBk eta EAK eskatuta, UNED ikastetxea bultzatu eta indartzeko konpromezua hartu zen, ikastetxea Bergaran jarraitzea ziurtatzeko. PSE-EEK kontra botatu zuen, gaia inguruko informazio nahikorik ez zuelako. Azkenik, emakumeek jasandako eraso eta bortxakeriei buruzko mozioa atzera bota zen HB eta EAren aldeko eta EAJ eta PSE-EEren kontrako botoekin. Bertan, emakumeei zuzendutako kontzientziazio kanpaina egitea, erasoak jasotzen dituztenei aholkularitza ematea eta eraso kasuetan Udala akusazio partikular modura aurkeztea eskatzen zen. Koldo Pereirak (EAJ) adierazi zuen argumentuekin ados egon arren, gai horiek Emakunderen esku daudela.

JAIOTAKOAK

Manex Azula Losada

Martxoak 21

Alejandro Martínez Roman

Martxoak 24

HILDAKOAK

M. Concepción Hdez. Jacobo

Martxoak 25, 93 urte

Gregoria Arratibel Irausta

Martxoak 25

Iñaki Xabier Osinaga Agirre

Martxoak 25, 70 urte

Fernando Muñoz Herrán

Martxoak 27, 53 urte

Iosu Imaz Arzelus

Martxoak 28, 15 hilabete

Maximo Loiti Laskurain

Martxoak 29, 77 urte

◆ **Jaietako txoznak**

Pentekoste jaietan txoznak jartzeko asmoa duten herriko entitate eta elkarteei gogorarazten zaie eskaerak aurkezteko epea apirilaren 7an, 13.30etan bukatuko dela. Eskaera orriak Barrenkale 7ko bulegoetan jaso daitezke.

◆ **Euskara Batzordearen dirulaguntzak ikastetxeei**

Euskara Batzordeak ondoko dirulaguntzak onartu zituen Bergarako ikastetxeek aurkeztutako ondoko proiektuentzat: Aranzadi Ikastolaren bertsolari eskola (300.000 pta.), Arkakuso aldizkaria (125.000) eta Takian-Potian irratia (250.000); Miguel Altuna Institutuaren Elemen Press aldizkaria (138.000) eta idazleak ikastetxeetan (60.000); Angiozarko eskolaren aldizkari, irradi eta bideoa (100.000) eta, azkenik, San Martin ikastetxearen erabilera kanpaina (180.000) eta barnetegietara joateko dirulaguntzak (329.000). Azken hau subentzionatuta dagoenez, aurrekontuaren erdiaren arabera aplikatuko da dirulaguntza.

◆ **Miguel Altuna**

Miguel Altuna Institutuaren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barne, asteartean, hilak 4, *Lanbide Heziketa eta entrepresa* izenburuko hitzaldia izango da 19.30etan. Hizlariak Javier Retegi Industria eta Garraio Sailburua, Eneko Oregi Hezkuntza Sailburuordea eta Jose Luis Garitano ADEGIko idazkaria izango dira. Era berean apirilaren 5 eta 6an *Ateak zabalik* izeneko ihardunaldiak egingo dira. Argazki erakusketa bat ere izango da.



laz egin ziren bisita gidatuetan San Pedron etaratako argazkia.

Turismo Bulegoa jarriko da martxan Aste Santuan

Udan hiru hilabetez izango da zabalik Udaletxean

Udalak turismo bulegoa irekiko du Aste Santuan, apirilaren 10etik 24ra bitartean. Xabier Aranburu udal museologoaren hitzetan, *"aurreko urtean bisitari dexente izan genuen herrian eta kanpotik etorritzen den jende horri zerbitzu hobea eskaintzea da gure asmoa"*.

Gogoratuko duzue, Udalak Estatu osoko turismo bulegoetara bidali zen Bergarari buruzko gida bat kaleratu zuen iaz. Euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez argitaratu zen gida hark turista ugari erakarri zuen gure herrira.

Orain, bulegoarekin, beste bul-tzada bat eman nahi zaio aurreko urtean martxan jarri zen Bergararen Zabalkunde Turistikorako Plangintzari. Orduan, Mankomunitateak ere Deba Garaiko turismo gida ar-

gitaratu zuen, turismo alternatiboaren barruan turismo kulturala indartu asmoz.

Turismo bulegoa, astegunetan goizez 3 orduz eta arratsaldez bi orduz izango da zabalik Udaletxean. Jaiegunetan, berriz, goizez bakarrik zabalduko da. Bisitariak Bergararen historia eta intereseko monumentuei buruzko informazioa jaso ahal izango dute bertan. Turismo bulegoa Bilboko enpresa bati adjudikatu zaio (jasotako 3 aurrekontuetatik berarena zen proiekturik onena) baina udarako lehiaketa publikoa egingo da. Udan turismo bulegoa hiru hilabetez zabalik egoteko asmoa dago.

Ekimen berri honekin, gure herria bisitatzera gero eta jende gehiago etortzea espero da.



PINTURAS BERGARA

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• **INDUSTRIARAKO PINTURAK** • **GARBIKETAK** •
• **APAINKETARAKO PINTURAK** • **ERROTULOAK** • etab...

Jardunen Txorimalo lehiaketa Erramu Zapatuko ferixan

Parte hartzeko izen ematea asteazkenera arte zabalik

JARDUNeko Gazte Taldeak

Txorimalo lehiaketa iragarri du datorren larunbaterako, apirilak 8. Bertan nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute eta, adinaren arabera, hiru talde bereiztuko dira: 14 urtera artekoak, 15-60 urte bitartekoak eta, azkenik, 60 urtetik gorakoak. Diseinua zein erabilitako materiala libreak izango dira eta txorimaloak ardatz edo haga bat eramane behar izango du. Bestela, oinarri sendo batean finkatu behar da.

Aurkeztutako txorimaloak goizeko 11etatik aurrera egongo dira ikusgai ferixan eta sari banaketa ordubatean egingo da. Sariak honako hauek izango dira: lehen taldeko irabazleentzat egun bateko bidaia 50 lagunentzat eta beste bi

taldetan berriz 15.000 eta 10.000 pta.ko sariak lehen birentzat. Izena emateko epea Jardunen (76 08 19 telefono zenbakia) izango da zabalik apirilaren 5era arte.



◆ Igeriketa probak

Bihar larunbata arratsaldeko 4retan Udaberriko Sariaren II. ihardunaldiko igeriketa probak jokatu dira igerilekuan.

◆ Eskulan erakusketa

Gaurtik apirilaren 18ra bitartean eskulan erakusketa ikusgai izango da Angiozarko Saloian.

◆ Pelota jaialdia

Gaur gaueko 10etan Frontoian pelota jaialdia izango da. Kategoria ezberdinetako binakako hiru partidu jokatu dira.

◆ Mus txapelketa

Bihar mus txapelketa jokatu da Artatse elkartearen 4retatik aurrera. Izen-ematea: 2.000 pezeta.

◆ Coruñako espetxera

Datorren ostiral gauean Coruñako espetxera joateko autobusa antolatu da. Izen-ematea Pol-Pol eta Arrano tabernetan.



Orain

URKIOLA


**jantzidendan,
gure puntako markez gain**

SNIF, EMOI, DIESEL, REPLAY, CHARRO,
ISLAND, DANIEL HECTER, CALVIN KLEIN,
GAULTIER JEANS, HARVEY ROTHSCHILD,
MARITHE FRANCOIS GIRBAUD.

URKIOLA modaren puntan

*Bidekurutzeta, 42
Bergara*

*Nagusia, 9
Legazpi*



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala). Telefono mobila. ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPIZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

LARRUAZALAREN GAIXOTASUNAK:

- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereok) - Barrenkale, 16 1 ☎ 76 18 81

PEDAGOGOIA:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo klinikoa) - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

Etxeko animaliak

Zoonosi-a

- Zer da zoonosia?

- Animalietatik pertsonetara transmititzen diren gaisotasunen multzoa litzateke. Zenbait kasutan gizaki zein animaliek gaisotasun horiek konpartitzen dituzte. Gizaki urbanoa gaitz horren arrisku talde bihurtu da eta beharrezko prekauzioak hartu behar dira. OMSk (Organización Mundial de la Salud) esaten duenez heziketa sanitarioa da zoonosia ekiditeko metodorik egokiena. Honekin ez da esan nahi etxeko animaliak izateari uko egin behar diogunik. Aldiz, egindako estudio askok jasotzen dutenez, gizakien osasun fisikoa zein mentala hobetzen dute eta jarrera aldaketen tratamenduan ere oso efektu onak lortzen dira. Gero eta jende gehiagok dauka etxeko animalia-
ren bat eta norberaren hijiene eta osasunarekiko gero eta sentsibilitate gehiago dago. Hori da txakur eta katuek transmititu ditzaketan zoonosiak ebiltatzeko metodorik onena.

- Zeintzuk dira zoonosi kasurik amankomunenak?

- Ehundaka zoonosi kasu dira eta guztien izendapena amaigabea litzateke. Estatuan benetako arazo sanitarioak sortzen dituztenak gutxi dira: leptospirosia (jatorria bakterietan duena), Mediterraneoko exantemika izeneko sukarra (rickettsiek sortua), amorrua (etiologia birikoa duena) eta hiru gaisotasun parasitari-



ESTHER SUINAGA
(Albeitaria),

oak: leishmaniosia, hidatidosia eta toxoplasmosia. Azken bi hauek eta amorrua dira kezka gehien sortzen dutenak.

- Zela ebitatu daitezke?

- Albeitaria izango da

"Gizaki urbanoa zoonosiaren arrisku talde bihurtu da eta prekauzioak hartu behar dira"



Gero eta jende gehiagok dauka animalia-
ren bat etxean.

prebentzioaren arduraduna eta medikua, berriz, tratamenduaz arduratuko da. Amorruari dagokionez, azken urteetan oso kasu gutxi eman dira eta 1990ean zenbait ziren 6 kasuak Melillan eman ziren. Normalean koska edota zauri baten bitartez ematen da kontajioa eta gaur egun ia elkarte autonomiko guztietan beharrezkoa da txertoa, Euskal Elkarte Autonomoan ezik (borondatezkoa da).

Hidatidosiaren kasuan, zenbait komunitatetan prebentzio eta kontrolerako plangintzak jarri dira martxan Osasun Ministeritzarekin batera, zeren eta batzutan beharrezkoa izaten da ebakuntza. Beste askotan kistea norbera ohartzeko izaten da. Gaisotasun honen sortzailea parasito bat (Echinococcus granulosus edo Taenia echinococcus) izaten da eta kasuen %75an gibelean kokatzen da. Kistearen tratamendua beti ere grabea da eta kiste bat kentzeak ez du beste zenbait agertzea eragozten eta kiste askoren agerpena opraiezina da.

Dena den, hemen eragin gutxi dauka. Euskal Herrian, Arabako lautadan eta Nafarroako erriban bakarrik eman dira zenbait kasu, Gipuzkoan ez. Dena den, 3 hilabetero animalia desparasitazteza komeni da.

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

42 97 42

Itxaropenaren telefonoa

Eva Azkarate bergararra duela 3 urtetik bertan

Itxaropenaren telefonoa duela 8 urte hasi zen. Astelehenetik ostiralera 9.30etatik 12.30etara eta arratsaldeko 4retatik 9etara dei daiteke. Baita zapatu goizetan ere. Eva Azkarate gizarte laguntzaile bergararak 3. adineko egoitza batean lan egiten du eta itxaropenaren telefonoan ordu libreetan egoten da deiak erantzuten.

Zergatik hasi zinen Itxaropenaren telefonoan?

- Bere berri izan nuen oso lan interesgarria iruditu zitzaidan, batetik, jende asko laguntza beharrean dagoelako eta bestetik, niretzat ere oso aberasgarria delako.

- Zein helburu du?
 - Gaur egun jendea oso bakarrik dago, ez du inor arazoak kontatzeko edo are gehiago, ezta hitzegiteko ere. Zerbitzu honetan jendeari entzun egiten diogu. Badirudi arazoa norbaiti kontatuz gero arazoa txikiagoa izaten dela. Gure lehenengo lana entzutea da. Horretaz gain, deitzen duenari gauzak argiago ikustarazi eta arazoa ulertzen dugula jakinarazten diogu, baina ez dugu ezer konpontzen, ez dugu arazo baten aurrean soluziorik ematen. Deitzen duenari berari pentsarazten diogu arazoaren arazoia zein den; gero bera da arazoaren aurrean zer egin erabaki behar duena.

- Nola egiten duzue lan?

- 50 lagun gabiltza, borondatez. 30ek telefonoa hartu eta batez ere entzun egiten dugu. Gai nontzekoak psikologo, sexologo, mediku, abokatu, eta era guztietako profesionalak dira. Norbaiten kasua larria iruditzen bazaigu gure egoitzara etorri eta psikologoarekin egoteko aukera ematen diogu.

- Zuk, Eva, zer egiten duzu?

- Telefonoan egoteaz gain gazte taldean nago. Talde honetan gazteen arazoak (drogak, e.a.) aztertuta eta txostenak egiten ditugu gainontzekoek gaita ezagutu dezaten. Beste

Esperantzaren telefonoak subentzioak eta jendeari dirulaguntzak jasotzen ditu. Nahi duenak eman diezaike borondatea. Hauek dira laguntzeko kontu korrante zenbakiak:

- Lankide Aurrezkian: 0600049005
- Kutxan: 00/60335126/63



AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
 Tfnoa: 76 57 85
 BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH

UNIBER

HISPANIA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
 ANTZUOLA

talde batzuk ere badaude, psikologoena, egunon taldea... Egunon taldea, esaterako, 3. adinekoei eta gaisorik daudenei zuzenduta dago. Gutako bakoitzak astero, edo deitzen duenak nahi duen maiztasunarekin, etxera deitzen diogu eta bera-rekin mintzatzen gara. Edozertaz egiten dugu berba, astea nola pasa duen, zer jan duen...

- Deitzen duena erraz hasten al da hitzegiten?

- Guk hau esaten dugu: "hau itxaropenaren telefonoa da. Kaixo" eta batzuk bapatean hasten dira berbetan; beste zenbait duda-mudan jartzen dira eta kosta egiten zaie hizketan hastea... denetarik dago. Batzuk, besterik gabe, aspertuta daudelako deitzen dute, norbaitekin hitzegiteagatik.

- Jendeak behin baino gehiagotan deitzen du?

- Bai, eta horrek esan nahi du telefonoak bere funtzioa betetzen duela, hau da, jendeak behar duen laguntza hein batean jasotzen duela, bestela ez lukete berriz deituko. Beste askok eskerrak ere ematen dizkigute, hobeto daudela esanaz...

- Urte sasoiaren arabera dei kopurua alda-tu egiten da?

- Neguan eta eguraldi tristea edo txarra egiten duenean jende gehiagok deitzen du.

NORK DEITZEN DU?

1988-1994 TARTEAN JASOTAKO DEIAK	
BIKOTEA ETA FAMILIA	2.020
DEPRESIOA	1.844
BAKARDADEA, INKOMUNIKAZIOA	1.791
ARAZO SENTIMENTALAK	1.045
ALKOHOLISMOA, DROGAMENPEKOTASUNA	917
GATAZKA PSIKIKOAK	889
ARAZO SEXUALAK	403
ERREKURTSO ESKASIA	257
ESKERRAK EMATEKO DEIAK	220
ARAZO SOZIO-JURIDIKOAK	206
BROMAK	163
ITXAROPENAREN TELEFONOARI BURUZKOAK	159
AMA EZKONGABEAK	149
JOKUARI BURUZKO DEIAK	132
BORTXAKETAK, TRATU TXARRAK	103
JOKAERA SUIZIDA	95
SEKTAK	97
ABORTOIA	48
FAMILIARTEKOREN BATEN HILKETA	18
BESTE DEI BATZUK	71
GUZTIRA	10.627

1993an JASOTAKOAK

Adinaren arabera	
5-20 urte	263
21-30 urte	400
31-40 urte	374
41-50 urte	372
51-60 urte	165
61-70 urte	75
70-tik gora	26
Sailkatu barik ...	115
GUZTIRA	1.784

Sexuaren arabera	
Gizonak	626
Emakumeak	1.158
GUZTIRA	1.784

- Harremana beti telefonokoa izaten da? Deitzen duenarekin ez duzue aurrez-aurreko harremanik?

- Ez, itxaropenaren telefonoaren ezaugarrieta-ko bat anonimoa izatea da. Zaila eta gogorra da, baina dei bakoitza berria bailitz hartzen da. Guk geure artean ez ditugu komentatzen jasotako deiak, anonimotasuna ezinbestekoa da. Bileretan

kasuren bat aztertzen de-
nean sekula ez da ematen
deitu duenaren daturik.
Erabat anonimoa da.

- Jendeak txantxe-tan deitzen al du?

- Batzuek bai, baina berehalaxe konturatzen dira benetan beharra du-tenei deitzeko aukera ga-lerazten ari direla.

**- Nola finantziatzen da itxaropenaren tele-
fonoa?**

- Telefonoaren gastu-

ak erakundeek emandako subentzioen bidez eta jen-deak emandako dirula-guntzei esker ordaintzen dira. Norbaitek lagundu nahi izanez gero Kutxan eta Lankide Aurrezkian ditugu kontuak.

**- Edozeinek dauka Itxaropenaren telefo-noan lan egiteko auke-
ra?**

- Bai. Karrera bat egin-da izateak eta ez du ga-rantzirik, laguntzeko go-goia besterik ez da behar. Berri bat sartutakoan, te-
lefonoa hartu aurretik, ur-tebeteko epea izaten du ikasteko: besteek nola lan egiten duten ikusi, talde desberdinen txostenak irakurtzen dira... presta-kuntza garaia izaten da.

"Itxaropenaren telefonoa dohainekoa da, akonfesionala, anonimoa eta apolitikoa"

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Gaia landuz.....

Denok festara!!!

• **Euskal Eskola Publikoaren Festa noiz izango da?**

• Datorren igandean, apirilak 2 Bilboko Etxeberria parkean.

• **Joan daiteke beste ikastole-takorik?**

• Noski, denak joan daitezke.

• **Zer egongo da, guk neska-mutilok egiteko?**

• Jolasak, erakusketa, Super bat...

• **Eta, orduan, joango al zara?**

• Ez dakit, lagunak animatzen badira...

• **Etorri! Primeran pasatuko dugu!!**

• Beno, ba han ikusiko gara, guraso edo lagunekin.

ANA ETA MARI JOSE

Anima zaitetz gure eskolan sartzten, denok pozik eta alai ikasten.

Anima zaitetz Bilbora joaten! Festan ondo pasa dezazun jokuak egongo dira, eta datorren apirilaren 2an goazen denok Etxeberria parkera.

VANESA G., RAQUEL R.
ETA MIRIAM M

Euskal Eskola Publikoa denona!!

Zer da zuretzat.....ESKOLA?



Ruben Valle
9 urte

"Ba niretzat eskola toki dibertigarri bat da. Zergatik? Ba, lagunak ezagutzen ditudalako eta ikasi egiten dudalako"



Jon Ander Gómez
8 urte

"Ikasteko toki bat da. Dibertitzeko, lagunekin jolasteko, ondo pasatzeko eta laguntzeko toki bat..."



Naiara Parra
9 urte

"Eskola gauza berriak ikasteko lekua da. Niri ez zait asko gustatzen baina gauza berri bat ikasten dudanean ez zait abazten"




Alberto Rubio
10 urte

"Eskola toki polit bat da. Han ikasten dugu, hitzegin dezakegu eta neska politak ezagutzen ditugu. Errekreioan kirolak egiten ditugu"

.....9 galdera motz

42 urte ditu eta urtebete darama San Martin ikastetxean zuzendari lanetan. Txikitan herriko eskoletan ikasi zuen.



Juan Carlos Goñi
zuzendaria

1 Noiztik maisu? Eta Ikastetxeko zuzendari?

19 urte maisu lanetan eta urte bat zuzendari.

2 Zenbat urte dauzka eskola honek?

Asko. Ni ere txikitan herriko eskolan ibili nintzen.

3 Zer izan zen ate irekien eguna?

Gurasoei eskola barrutik erakutsi genien.

4 Nola irten zen?

Helburuak bete ziren, jai-egun polita izan zen...

5 Etorkizunerako asmo berririk?

Asmo ugari ditugu, besteak-beste irratia sortzea.

6 Zergatik jarri nahi duzue D eredua?

Gurasoek eskatu digute. Eskolaurrean martxan da.

7 Eta OHOn noiz jarriko da?

Datorren urtean.

8 Zer iruditzen zaizu Korrika festa?

Neri festa guztiak asko gustatzen zaizkit.

9 Zertarako balio du zure ustez?

Gure kultura eta hizkuntza erreibindikatzeko.

Txistreak



Manuel Sánchez
10 urte

**Bi NOTIZIA:
BAT ONA ETA
BESTEA TXARRA**

Baziren bi lagun:
Joxe eta Antxon.
Asko gustatzen zitzaien pelotan jolastea. Egun batean, bapatean, Joxe hil egin zen.

Handik egun batzuetara, Antxon lo zegoela, Joxeren ahotsa entzun zuen:
Antxon, Antxon zuri bi berri ematera nator, bat ona eta bestea txarra.

Lehenengo ona esango dizut: zeruan badaudela pelota frontoiak.

Eta orain beste notizia: datorren astean partidua duzula han goian.

Jolasean.....

Hizki Zopa


Topatu itzazu eskolan aurkitu ditzakegun 6 gauza

SOLUZIOAK:

- ARTAZIAK
- MARGOAK
- ARBELA
- ERROTUGALBUAK
- ARKATZA
- LABORATEGIA

O	D	E	L	I	J	A	M	E	T	B	J	O	N	L	S
A	M	A	A	R	B	E	L	A	M	Z	H	A	K	J	O
S	I	P	B	S	M	O	J	R	I	T	I	R	H	O	T
V	H	S	O	T	T	H	E	S	M	U	V	K	U	K	T
I	E	R	R	O	T	U	G	A	I	L	U	A	K	A	K
A	R	J	A	H	B	E	S	I	J	B	M	T	N	Z	U
H	O	M	T	R	Z	H	U	A	R	T	A	Z	I	A	K
J	S	M	E	V	A	Z	T	N	E	U	A	A	M	A	Z
M	A	R	G	O	A	K	I	H	Z	E	H	K	H	F	O
S	O	J	I	B	A	A	H	J	I	Z	S	M	Z	O	B
M	S	I	A	T	E	Z	N	O	R	M	R	B	E	S	A

Zinearen 100. urteurrenean, zeintzuk dira gehien gogoratzen dituzun pelikulak?



Imanol Cerdeira
29 urte, langilea

Ez dakit, txikia nintzenean *La guerra de las galaxias* eta *Tiburón*, Hitchcockenak... Eta azkenetatik *La máscara* eta *Forrest Gump*.



Saioa Mujika
15 urte, ikaslea

Forrest Gump. Batez ere hilketazkoak atsegin ditut, akziozkoak. Eta Richard Gerenak: *Pretty woman*, *Oficial y caballero*. Jodie Foster ere gustatzen zait.



Mikel Gutiérrez
23 urte, langilea

Bakeroenak beti gustatu izan zaizkit. Azkenaldian ikusi ditudanetik, *La mano que mece la cuna* eta *Bailando con lobos* baina ez naiz zinera asko joaten.



Estefania Herrador
33 urte, langilea

Cinema Paradiso asko gustatu zitzaidan, hurreko astean ikusi nuen *Trust* izeneko bat ere bai, *La teta y la luna*.. Danetik gustatzen zait baina intimistak gehien.



Iñaki Mata
30 urte, titiriteroa

Fresa y chocolate. Txikitan Charlot eta Buster Keatonen pelikulekin primeran pasatzen nuen. *La quimera del oro* gogoratzen dut bereziki.



Susana Aranzabal
29 urte, langilea

Casablanca, betikoa izan da eta. Azkena *La reina Margot* ikusi nuen eta ez zitzaidan gehiegi gustatu. Komediak eta erromantikak nahiago ditut, zaharrak batez ere.

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78



SANTOS
IRRATI-TB

- ✓ ELEKTRAGAILUAK
- ✓ SUKALDE ALTZARIAK
- ✓ ARGIZTAPENA
- ✓ ANTENA KOLEKTIBOAK
- ✓ TB, BIDEO ETA SOINU APARAILUEN KONPONKETA

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10



Erreferenduma

Izan berri naiz Urbina eta Maltzaga arteko autopistaren erakusketa ofizialean. Polita dela zalantzarik ez baina gero benetan egingo duten eta autopistak izango dituen eraginei buruz gizurtero samarra deritzot.

Batetik, Interbentzio Gune Partzehartzaileak (NIP) azterketaren ondoren hara bildu ziren lagunek hobetsi zuten aukera autopista hori izan zela sinistarazi nahi digute. Iruzur horretaz nahikoa idatzi da bazterretan. Baina beste iruzur haundi bat beste nonbaiten dago, hots, erakusketaren bidez herritar guztiak erabakiaren partaide direla adierazi nahi dute eta.

Baina ozenki esan beharra dago erakusketa ez dela nahikoa. Erakutsi eta gero, zergatik ez zaigu galdetzen zuzen zuzenean ados gauden ala ez? Hain demokratikoa zen prozesuari ez zaio, bada, falta oinarrikoa dena? Jendeari galdetu behar zaiolakoan nago eta ez, besterik gabe, zozketaz hautatutako lagun kuadrila ezezagun bati.

Egin beharreko errepideaz erabakirik hartzekotan erreferendum bat egin beharko litzateke. Eta oso erraza eta merkea da, laister Udal hauteskundeak egingo dira. Zergatik ez aukeraz baliatu beste ontzi batean autopistari buruz galdetzeko? Nor egon daiteke erreferendum horren aurka? Ez litzateke diru berezirik behar izango, ezta lan ordurik galduko eta emaitza hori litzateke jendeak nahi duenaren azalpenik adierazkor eta zuzenena. Eta garaiz gaude gainera. Ez baita makala aurrean dugun aukera: ordaindu beharreko eta txikizio haundiak egingo dituen autopistaren alde ala doan litzatekeen bide bizkorren alde.

Fermin LAZKANO



Lotsaturik

Oñatiko plaza erdian, tristura, nahigabea, atsekabea, lotsa, garratasuna sentituz aurkitu ginan ezinaren deadarra jaurtizera behartuz aurrean ikusten genuena ikusiz. Baina, zer da ba ikusten dena plazaren erditik hain gauza beldurgarria eta lotsatzekoa? Ikusi behar genuena ezin ikusi, estalirik dagoelako.

Gatozen ba, misterioa agertzera. XVgarren mendeko monumentu izugarria bezain aberatsa da San Migel eliza. Hamaseigarren mendean Rodrigo Mercado de Zuazola, Gotzai oñatiarrak Elizari, bere ekialdean, ereiki zion beste zati bat, kapila eta klaus-troa. XIX. mendean, plaza aldera ematen duen Elizaren fatxada estali egin zuten, orma kontran etxeak eginaz. 1931garren urtean, ekainaren 3an, San Migel eliza "Monumento Nacional" deklaratzeko da. 1959an Oñatiko Ordenamendu Orokorreko Plangintzaren arabera Elizari lotuta dauden etxeak "en ruinas" deklaratzeko direnean ereikuntza berririk ez egitea edo zona berdea jartzea erabakitzen da. Hau da, horrelako egoerara iristean, Eliza inguru garbi lagatzea.

Baina tamalez, 1985ean, Udalak lur zati horiek ereikitzeke baliagarri direla erabakitzen du etxe berriak edo berriztuak jaso dituztelarik. Ondorioz, arkitektura eta arte aldetik aberastasun ikaragarria dutenak, hortxe estalirik gelditzen dira. Oñatiko herriari edertasunik ez zaio falta baina toki hori berreskuratu bazen dotoretasunak gainez egingo zukeen. Eliza, plaza eta bere inguruak ase ezinezko edertasunez horniturik bilakatuko zelarik. Baina nola egin da gisa honetako astakeria?

Gure herria hain kultura eskaxekoa al da ba? Nori burutzen zaio horrelako irrazionalitatea? 1959ko akordioak bete balira, gaur, Oñatiko plazak eta bere inguruak edonoren begiak txunditurik lagatzeko panorama eskeiniko luke. Penagarria, benetan penagarria Oñatiko herriak galdu duena.

Andres OSA "SAKONA"

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

EDEL TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik
haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik
egokienaren berri eskatzea.


Bidekurutzeta, 14 BERGARA



Ikasleek pilotari buruz jakin daitekeena ikasteko aukera izan dute egun hauetan.

Pilotaren historia ezagutzen

Aste honetan bertan herriko ikastetxeetako gaztetxo ugari hurbildu da **Kultur Etxera** pilotaren historia biltzen duen erakusketa ikustera. Ikasleek pelotak izan duen eboluzioa ezagutzeko aukera izan dute bertan ikusgai diren pelota tresna, argazki zahar, maketa, bideo edota pelotari onenen inguruko informazioaren bitartez. Pilotak nola egiten diren ezagutzeko tailerrak edota mahaia-inguruak ere antolatu dira. Pelota zaletuek igandera arte izango dute erakusketa interesgarri hau bisitatzeko aukera. Gaztetxoen artean badira bai pelotako izarrak izatearekin amets egiten dutenak...



Pazkuetako kartela

Elena Reifsek Udalak konbokatutako kartel lehiaketa irabazi du. Aurreko karnabaletan bere lan batek Kultura, Jaiak eta Gazteria Batzordeak antolatutako lehiaketa irabazi bazuen ere, oraingoan Pentekoste jaietako lehiaketako irabazlea izan da. Lan gutxi aurkeztu badira ere, epaimahaiak Elenaren lanaren

kalitatea goraiatu du. Bertan mutiko bat eta gazte bat ageri dira Udaletxeko balkoitik suzko erroberak ikusten eta jendea dantzan San Martin plazan. Elena Reifsek 50.000 pezetako saria eskuratu du. Zorionak!!



Korrika, lasterka, antxintxika, saltoka...

Igandean Gasteizen amaitu zen **Korrika** Bergaratik pasa zen aurreko ostegunean. Klean beste urte batzuetan baino jende gutxiago ikusi bazen ere, Bergarako irteeratik Elgetara bidean herritar dexente animatu ziren aldapan gora korritzera. Korrikak ikusmin haundia sortu zuen eta arratsaldeko lehen ordutik herriko ikastetxeetako haurrak irten ziren kalera giroa alaitu eta Korrika txikian parte hartzera. Hemendik bi urtera gehiago oraindik!!

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilaskoak

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Udaletxea ikusten

Aste honetan zehar berriztutako Udaletxea ikusteko bisita gidatuak izan dira. Goizez eta arratsaldean antolatutako bisitaldietan, herritarrek zein hainbat kanpotarrek Udaletxeko instalazioak ikusi eta, Udaltzainen eskutik, beharrezko azalpenak jasotzeko aukera izan dute.



Kanpotik etorritako bisitariak ere izan dira Udaletxea ikusten.

Jendea erabat lilitatuta geratu da bertan ikusitakoaz eta bisitariak Pleno aretoa eta gan-

baran dauden alderdien bulegoak goraipatu dituzte bereziki. Datorren astetik Udaleko

hainbat zerbitzu bertan hasiko direlanean. Bestalde, pasa den martxoaren 3tik gaur arte

ikusgai izan den "Udaletxea historian zehar" erakusketa 5.200 lagunek ikusi dute.

Zertan dihardute ba?



Manu Muniategi

28 urteko pintore bergararrak margo erakusketa berri bat inauguratuko du Donostiako San Martin kalean dagoen DV Galerian. Bertan azken aldian landutako "Figurazio eta abstrakzio arteko nabasketa" isladatzen duten 12 kuadro erakutsiko ditu. DV Galeria orain dela hilabete batzuk zabaldu du egunkari donostiarrak eta bergararrarena antolatzen duen hirugarren erakusketa da. Aurretik Sean Sculi pintorearena eta Alberto Peral, Joseba Lacadena eta Edu Lopezena antolatu ditu. Manu Muniategik Madrilera Emilio Navarro Galerian beste 11 kuadro ditu erakusgai Aste Santu osterara arte eta Donostiako Arte Lekun beste bi kuadro hainbat artistekin batera.

Zuhaitz berezia

Naturzaintzak bereiztu eta babestu dituen Gipuzkoako 5 zuhaitzen artean Olaso Dorrean dagoen magnolioa aurkitzen da. Magnolioa ofizialki monumentu natural kontsideratuta dago, Estatu Batuetako hegoekialdean du bere jatorria eta jadanik 160 urte inguru ditu. 1992ko abuztuan bere adarrik sendoena galdu zuen arren, oraindik ere egoera ezinhobean dago. Espero dezagun Naturzaintzaren aipamen horren ondorioz magnolioak oraindik indar gehiago hartzea...



Olaso Dorreko magnolioa naturzaintzak bereiztu eta babestu dituen Gipuzkoako 5 zuhaitzen artean dago.

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz, 4 EIBAR
☎ 76 63 42 ARRASATE

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriadako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

Regino Valle

Kultur Ekintza-Promoción Culturaleko bultzatzaileetarikoa bat, Regino Valle (59 urte) 25 bat urte eman ditu herriko kulturaren alde lana egiten. Era berean, 1970etik 78ra bitartean Udaleko zinegotzia ere izan zen.



"Kultura mailan koordinazio on bat botatzen dut faltan. Gaur egun laguntza publikoa ezinbestekoa du. ETB-2a eta TVE-1a dira gehien ikusten ditudan telebista kateak. Pasiatzea gustatzen zait eta kruzero bat egingo nuke"

- Zelan ikusten duzu Bergara kultura mailan?
- Baju.
- Zer botatzen duzu faltan?
- Koordinazio on bat, gauza asko hobetu daitezke.
- Zein taldek egiten du lanik aipagarriena?
- Musika Eskolak, nahiz eta gaur egun akademia bat izan.
- Artista asko atera dira Promoziotik?
- Zenbait irtezeko baldintzak eman ditugu baina batzuk ez dute horrela ikusten.
- Zein da gehien gogoratzen duzun ekitaldi kulturala?
- Miserableak eta Silvio Rodríguez eta Pablo Milanésen kontzertua.
- Eta frakasorik haundiena?
- Oskorriren emanaldi bat lralan eta Tete Montoliúren beste bat.
- Kulturak laguntza publikoa

- behar du?
- Bai, gaur egun ezinbestekoa da.
- **Noiz irakurtzen duzu egunkaria?**
- Egurdian.
- **Nondik hasten zara?**
- Azaletik. Eta kirolak kenduta beste guztia irakurtzen dut.
- **Horoskopoa?**
- Ez, zorte txarra dakar.
- **Gehien ikusten duzun telebista katea?**
- ETB-2a eta TVE-1a.
- **Zeintzuk dira gehien gogoratzen dituzun pelikulak?**
- Oestekoak eta erromatarrenak, *El árbol de la vida*, *Al este del Edén...*
- **Gehien gustatu zaizun liburua?**
- *Guerra y Paz*, Tolstoirena.
- **Hobby bat?**
- Pasiatzea.
- **Bertute eta defektu bat.**
- Bertutea lanerako gogoia eta defektuak guztiak.
- **Udaletxearen berriztea atsegin zaizu?**
- Gaur goizean (astelehenean) egon naiz eta asko gustatu zait.
- **Udaberriaren etorrera igarri duzu?**
- Bai, ez daukat alerjariak baina animatuago nabil...
- **Egitea gustatuko litzaizukeen gauza bat?**
- Kruzero bat. Eta soldaduzkan bi urtez egon nintzen itsasoan El Ferrolen...

Biltoki



SONY

SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

ETXEBIZITZA

Duplex bat salgai Masterrreka 6an. Berritzeko aukera. ☎ 13 35 27.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Pisua alokatzen da Cristo Obreron. ☎ 76 42 96.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea salgai Antzuolan (Ibarrondon). ☎ 76 63 65.

Pisua salgai Zumaian. ☎ 76 44 53/74 31 81.

Bi pisu alokatzen dira San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisu bat alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauetz).

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 15 64.

Pisua salgai Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea saltzen edo alokatzen da. ☎ 76 21 09.

DENETARIK

Musika **bateria** salgai. Ia berria. ☎ 76 08 58.

Soinu beltza salgai. ☎ 76 59 95.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Botoidun **akordeoia** erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

Ezkonduen eraztun bat (aliantza bat) topatu dut. ☎ 76 13 14.

Futboleko bota berriak salgai. 38 zenbakikoak. 5.000 pta. ☎ 76 48 68.

Pisua konpartituko nuke Donostian apiriletik urrira. ☎ 76 19 88 (Josemi).

Mobilette Cady bat salgai. ☎ 76 54 73.

Reflex Minolta argazki kamara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Gimnasiako Van Allen ekipoa salgai. 50.000 pta. ☎ 76 11 43 (4-7.30).

Karta astralak egin eta tarotekoak botatzen dira. ☎ 76 07 87 (Jabier).

Korredorezko **Biondi bizikleta** salgai. Shimano piezak. Oso merkea. ☎ 79 49 30 (Iosu).

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Etkez etxeko garbiketak. ☎ 76 46 14 (Pili).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Ingeles Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Historiagile bat eskeintzen da genealojia egiteko. ☎ 88 30 72 (Arkaitz).

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxetz. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

Zuzendaritza Idazkaritza ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

Haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokitak eta tapizatuak •

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24



"Elkarte gastronomikoetako martxak eta Bergarako ereserkia jasotzen dituen diskoa grabatu dugu"

"Zenbat eta gehiago jo orduan eta azkarrago asimilatuko da himnoa. Herritarra izatea da asmoa"

ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE, MUSIKARIA

"Solemne samarra da Bergarako himnoa, herriaren izaerarekin bat datorrena"

Alfredo González Chirlaque, Bergarako Udal Musika Bandako eta Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoko zuzendariak eta Juan Martín Elexpuru idazleak konposatu berri dute Bergarako ereserkia. Musikaz arduratu denarekin izan gara.

- Nola sortu zitzaizuen Bergarako himnoa egiteko proposamena?

- Herriko elkarte gastronomikoen himno eta mar txekin diskoa grabatzeko ideia zuen Udalak. Hori kontutan hartuta, eta Bergarak ereseririk ez zenez, himnoa konposatzeko enkargua eman ziguten Juan Martini eta niri.

- Beraz, disko horretarako grabatu zenuen...

- Bai, beste arrazoi batzuen artean. Diskoa grabatu dugu dagoeneko IZ estudioetan. Udal Musika Bandak grabatu du eta Bergarako himnoaz gain, San Martín, Or Konpon, Umore Ona, Pol-Pol, Pix-Pol, Campeones, San Martingo ereserkia, Pertxa, Alzasu, Bergarako Musika Eskola eta Oilgorra himnoak jasotzen dira. San Martingo danborradan jo-



Ereserkiak egiteko enkargu ugari jaso ditu Alfredok azkenaldian.

tzen direnak. Aitak eta biok konposatutakoak dira guztiak.

- Noiz argitaratuko da diskoa?

- Ekitaldi garrantzitsu bat egiteko asmoa dago Udaletxe berria inauguratzen denerako edo. Orduan aurkeztuko dira diskoa eta ereserkia. Diskoa konpaktoan eta zintan argitaratuko da. Bestalde, diskoaren azala Migel Okinak egin du.

- Nolakoa da Bergarako himnoa?

- Beno, solemne samarra da. Erritmoari dagokio-

"Orain arte ereserki asko gai liturjikoarekin lotuta joan dira, baina gauza bat Eliza eta bere patrioiak dira eta beste bat herri baten himnoa"

nez hirukoitza, eta hiru zati ditu: sarrera, bigarren zatia melankolikoagoa, suabeagoa eta hirugarrena, lehen zatiaren errepikapena baina sonoritate haundiagoz, amaiera da eta. Ia hiru minutuko iraupena du eta oso sinplea da. Herriak erraz ikasi dezala da gure asmoa. Testuari dagokionez ere erreza dela esan daiteke. Juan Martinek herriko parrokiak, kaleak eta baserriak, eta herritarrak aipatzen ditu, baita Bergararen solemnitateri hori, jakintza gosea, euskaldun izatea... Uste dut Bergararen izaerarekin bat datorrela, bai musika eta baita letra ere.

- Eta erabiliko al da himnoa?

- Herri edo erakunde bateko ereserkia ekitaldi ofizialetan erabiltzen da. Baina, argi dago zenbat eta gehiago jo, orduan eta azkarrago asimilatuko dutela herritarrek. Herritarra izatea da asmoa.

- Bergarak behar al du himnorik?

- Inoiz ereseririk izan ez arren, San Martín mar txak erabili izan da Bergarako himno bezala. Baina gai liturjikoarekin lotuta doa, eta gauza bat Eliza eta bere patrioiak dira eta beste bat herri baten himnoa.



emaitzak

▼ KOPA TXAPELKETA

Paok San Juan-Ogizun.....	2 - 10
Usoa-La Juve.....	2 - 8
Krai-Nahikari Hoolligans.....	3 - 5
Txipiron-Kabia.....	11 - 1
Igandekoak-Etxenagusia....	2 - 7
Los Txupeta-Ari Ari.....	4 - 3
OH Zerezos-A Ze Flaxa.....	10 - 1
Ozaeta-Arloteak.....	1 - 2
C. Bergara-Aldoka.....	3 - 3
Pagomendi-Patxaran T.....	11 - 1
Hartu Zamak-Revienta.....	6 - 5
Eri-Amozkibar.....	6 - 3
Soropotoak-Pata Negra.....	10 - 2

▼ PLAY-OFFAK

Bildurbarek-Mongatxurra....	4 - 3
Angiozar-Bar Canalejas.....	4 - 3



Liga txapelketako lehen kanporaketak jokatu ziren joan zen asteburuan eta Bildurbarek eta Angiozarrek, Mongatxurra eta Canalejas taldeak ligatik kanpo utzi zituzten. Bi partiduetan emaitza estuak izan ziren (4-3), irabazleek gol bakar batez gainditu baitzituzten euren arerioak. Emaitza horiek argi uzten dute ligako txapela bilatzeko borroka estua izango dela, taldeen arteko diferentzia eskasa da eta, gainera, partidu bakar batera jokatzen denez, diferentziak gehiago txikitzen dira.

partiduak

▼ KOPA TXAPELKETA

LARUNBATA

Barruan
 9.00: Pikapiedras-Labegaraieta
Antolaketa Batzordea
 19.00: Soropotoak-Pata Negra
Angiozar
 20.00: EH Biterrak-Angiozar
Soropotoak

IGANDEA

Barruan
 9.00: Bar Canalejas-Kirolzaleak
Ezinleike
 10.00: Ezinleike-Madura
Bar Canalejas
 16.00: Shaktale-Nekrofilikos
Errotagain
 17.00: Errotagain-Arkupe
Ari Ari
 18.00: Los Txupeta-Ari Ari
Ufala
 19.00: Ufala-Uve Bikoitza
Bildurbarek OPEL/LAM
 20.00: Kayak OJ-Bildurbarek
Uve Bikoitza

Kanpoan


16.00: Usoa-La Juve
Etxagi
 17.00: Etxagi-Mongatxurra
Usoa



komentarioa

Kopa txapelketa bukatu da talde batzurentzat eta beste batzurentzat asteburu honetan bukatuko da. Kopatik at gelditu direnen artean ez da sorpresa handirik izan, baina joan zen asteburuko emaitzei begiratzeko badiegu La Juvek Usoari, iazko ligako txapeldu ordea, sartutako 8 golak azpimarratu daitezke. Asteburuan partidu interesgarriak iragarri dira, zeren eta Ufala, Bildurbarek eta Madurak, Uve Bikoitza, Os Jardineiros eta Ezinleikeraren aurka gol bakar batez irabazi baitzuten.

Ligako play-offak



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
 ☎ 79 91 82 ARRASATE



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



Finala jokatu zuten bikoteak.

Pala Txapelketako finalak

Zabalo eta Azkarate antzuolarrak Kirol Zerbitzuak antolatu duen 2. pala txapelketaren irabazleak izan dira. Joan zen larunbatean jokaturako finalean 35-27 irabazi zieten Andonegi-Landa mendatarrei. Finalaren aurretik Etxaniz-Hector osintxuarrek, 35-28 irabazi zioten Gaztelu-Rodriguez bikoteari. Guztira 14 bikotek hartu dute parte txapelketan eta maila ona erakutsi dute. 11 bikote Bergarakoak izan dira eta beste 3rak kanpotarrak. Azken hauek herritarrak baino hobekak izan dira. Sari banaketa ekitaldian Iñaki Ugarteburu, Udal Kirol Zerbitzuko teknikariak eta Xabier Zabaleta, Kiroletako zinegotziak hartu zuten parte.


Mendi astea

Igandetik aurrera, diapositibak, erakusketak...

Igandean hasiko da Pol-Pol mendizale taldeak, Jardunek eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako mendi zikloa goizeko 8,30etan egingo den argazki rallyarekin.

Zikloaren ardatz nagusia diapositiba emanaldiak izango dira eta lehenengo astelehenean izango da. Ramon Maria Loitik "McKingley" emanaldia emango du eta Benito Cantero eta Martin de Pedrok, aldiz, "Alpeak" lana aurkeztuko dute. Asteartean Iñurrategi anaiek "Makkalu" erakutsiko digute eta asteazkenean Xanti Gorrotxategiren "Euskal Herriko Mendiak" diapositiba emanaldia izango da protagonista.

Ostegun eta ostiralean Iñurrategi anaiek izango dira, lehenengo egunean "Everest" eskeiniko duten bitartean, bigarrean "K2/94" lana. Azken diapositiba emanaldia astelehenekoa izango da eta Fe-



Astelehenean, hilak 10, Felipe Uriarteren diapositibak ikusteko aukera.

lipe Uriarteren "Bhagirathi III" lana ikusteko aukera izango dugu. Emanaldi guztiak UNEDeko aretoan arratsaldeko 8etatik aurrera izango dira.

Mendi materiala

Diapositiba emanaldiez gain, asteartetik igandera bitartean gartzela zaharrean Iñurrategi anaiei men-

di materialaren erakusketa izango da. Larunbatean, berriz, goizeko 9etan Frontoitik irtenda mendi garbiketa izango da Pol-Pol iturri inguruan. Igandean, goizeko 8,30etan, gaztetxoak frontoian elkartuko dira Adarra mendira irteera egiteko. Azkenik, asteartean, 11, Pol-Polen argazki rallyaren sari banaketa eta proiektzioa izango da.

KOXKA

- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia) ☎ 76 28 04 BERGARA

Matxiategi Elektragintza C.B.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Fleming Dokorea, 5 ☎ 76 19 94

ORTZI erretegia

Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
130 lagunentzako jantokia

☎ 76 22 68 ANGIOZAR

KARTELDEGIA

► **Futbola**

Bergara-UPV
Preferentea.

Igandea, 17.00. Agorrosin.

Bergara-Munibe

2. mailako jubenilak.

Larunbata, 17.15. Ipintza.

Bergara-Arrasate

2. mailako kadeteak.

Igandea, 10.00. Ipintza.

Bergara-Sporting Herrera

Lehen mailako infantilak.

Larunbata, 15.45. Ipintza.

Bergara-Urretxu

Emakumezkoak

Igandea, 11.30. Ipintza.

► **Eskubaloia**

Bergara-Bidebieta

Kadete neskak.

Larunbata, 16.15.

Bergara-Bidebieta

Jubenil neskak.

Larunbata, 17.45.

Bergara-Ormaiztegi

Kadete mutilak.

Igandea, 11.00.

Bergara-Elgoibar

Jubenil mutilak.

Igandea, 12.30.

Guztiak Kiroldegian.

► **Saskibaloia**

Bergara-Amigos del

Baloncesto B

Kadete mutilak.

Larunbata, 12.15.

Bergara-Lasarte Ori

Jubenil neskak.

Larunbata, 12.15.

Biak Kiroldegian.

► **Pelota**

PROFESIONALAK

Errasti / Ariznabarreta
Banakako txapelketakoa.

Ansotegi eta Oregi /

Koka eta Balerdi

Goñi eta Andueza V /

Ortiz eta Errasti

Larunbata, 16.30.

Udal Pelotalekuan.

Iker Muruamendiaraz

Espainiako pelota txapelkunordea

Joan zen asteburuan Iker Muruamendiaraz pelotaria Espainia mailako eskuz banakako txapelketan, Gipuzkoa ordezkatzuz, bigarren sailkatu zen Larraya atarrabitarraren aurka galdu ondoren Logroño-ko Adarra frontoian jokatuako partiduan.

- Asteburu bakar batean bi partidu jokatu zenituen, nola ikusi zenuen zeure burua?

- Lehenengo partiduan, Katalanaren aurka, sakean asmatu nuen eta nahiko erraz irabazi nion (18-2). Bigarren partiduan Larrayaren aurka jokatu nuen eta joan zen urtean Euskadiko Ligako txapelketa finala irabazi nion arren, bostean laga ninduen. Hasiarik 6-0 jarri zen eta sake asko sartu zidan.

- Zeintzuk izan ziren galtzeko faktoreak?

- Entrenamendu falta. Mano-manoan jokatzeko puntu-puntu egon behar duzu eta aspaldian jokatu barik igartzen da. Bera, berri, topera joan zen.

- Zergatik entrenamendu falta hori?

- Mano-manoarekin nekatuta nago, hainbeste denbora jokatzeko eta gero aurrean ibiltzeko postura aldetik arazoak ditugu. Hala ere orain Donostiako mediku batengana frogatzeko egitera joan gara eta esan digunez fisiko aldetik flojo xamar gaude. Horregatik orain asteen zehar lau entrenamendu egiten hasi gara prestakuntza fisiko hobetzeko.

- 18 urte betetzear

zaude eta orain arte jokatutako final gehienak irabazi egin dituzu. Nola hartu duzu igandekoa galtzea?

- Ez dakit.. gehiegi ez dit afektatu, orain ikusi behar. Han behintzat ondo pasatu genuen...

- Hotelean izan zinatea entzun dugu...

- Bai. Larunbat goizean heldu ginen Logroñora eta goizean partiduak ikusi ondoren, bazkaltzera hotelera joan ginen. Oso ondo tratatu gintuzten Logroñon.

- Orain ze txapelketatan hartuko duzu parte?

- Lau terdia prestatzen dihardut eta gaur bertan Zumarragan semifinala

daukat, bestalde Elgetako txapelketan parte hartzeko ere izena eman dut. Joan zen urtean final laurdentzara heldu nintzen eta aurretan, Barberito, errioxarra ez bazait tokatzen zerbait egin dezaket.

- Herriko pelotazaleen artean etorkizunean pelotari ona izan zaitezkeela garbi dago. Horrek presiorik sortzen al dizu?

- Jendeak esaten dit entrenatzeko eta horrelakoak, baina nik gauzak datozen bezala hartzen ditut. Reyesekin frontoian egutero lan egiten dut eta medikuak agindutako lan fisiko ere berak agindu bezala betetzen dihardut.



Ikerrek lau terdiko txapelketan jarri ditu esperantzak aurretan.

"Banaka jokatzeko nekatuta nago, aurreko koadroetan hobetu nahi dut orain"



Jaixetaruntz

Egualdi onakin eta eguna luzetziakin batera, juergarako gogua be haunditu eitten da eta kirol hau praktikatzeko aukeria be zabaldu.

Udabarrixan Aste Santua pasau ostian, geure herri eta auzuetan (edo inguruetan) makina bat jai dago. Hala be esan, jai inportantienak mantentzen dien arren, auzuetako asko eta asko galtzen joan diela, edo behintzat, gaztionaño ez die aillegatzen.

Erretratuko kuadrillia oin ddala 25 urte, pazkuetan Bergarara etorri ei zan barku baten sartu zan, eta hemenditik datorkigu errekuertu hau.

Ezkerretik eskumara:

Atzian: Sara Gonzalez, Elisabet Arrieta, M. Anjeles Zaitegi, Pili Fernandez, Mila Lete, Arantxa Balzategi, M. Eugenia Igarza.

Aurrrian: Anjel Elkoru, Martin Muruamendiaraz, Antton Otaola, Muñoz, Antonio Elorza, Axen Alvarez, Luis Azkondo.

Felipe Iñarra

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

Esther Suinaga

albaitaria

Etxez-etxeko zerbitzua

Etxeko animaliak, mikro-txipak, txertoak, medikuntza orokorra

☎ 76 17 84

LARRAÑAGA

eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

BERGARA

Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48

14-20 urte bitartean bazaude...

Zurea da aukera!!

HEZIBIDE

BATXILERGOA

MODULOAK eta F.P.2

SAIO INFORMATIBOAK

ALMEN IKASTOLA

Eskoriatza

Telefonoa: 71 49 07

Josebe Muruamendiaraz

BATXILERGO OROKORRA

GOI BATXILERGOAK

- Natur Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

3 MAILA

- Ekintza Sozio-kulturalak
- Gorputz eta Kirol ekintzak

GOI-BATXILERGOAK

Martxoak 29, asteazkena, 6etan

BATXILERGO OROKORRA

Martxoak 28, asteartea, 6etan

ESKOLA POLITEKNIKOAK

Arrasate

Telefonoa: 79 47 00

Miren Murgiondo

LOGSE BATXILERGOAK

- Teknologia
- Natur eta Osasun Zientziak

2 MAILA

- Herramienta makina operatzailea
- Sukaldaritza

3 MAILA

- Fabrikazio mekanikoa
- Sistema mantenua
- Industrial diseinua
- Sistema automatiko eta programagarriak
- Harrera

3. MAILAKO MODULOAK

Apirilak 4, asteartea, 6etan

LOGSE BATXILERGOAK

Apirilak 5, asteazkena, 6etan

E.T.E.O

Oñati

Telefonoa: 78 13 11

Iñaki Gaztañaga

GOI BATXILERGOA

- Administrazioa eta Gestioa

3 MAILA

- Gestio programatzailea
- Nazioarteko merkataritza

F.P.2

- Marketing
- Kontabilitatea
- Informatika

GOI BATXILERGOA

Martxoak 30, osteguna, 6.30eta

SAN FKO XABIER IKASTOLA

Arrasate

Telefonoa: 79 64 79

Elena Errasti

BATXILERGO OROKORRA

Hezkuntza Sistema berria eta irtenbide akademikoak

Martxoak 21, asteartea, 6etan

Martxoak 23, osteguna, 6etan

SAN VIATOR IKASTOLA

Arrasate

Telefonoa: 79 04 11

Idoia Urrutia

BATXILERGO OROKORRA

GOI BATXILERGOA

- Natur Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

3. MAILA

Bizigiro osasuna

GOI BATXILERGOAK

Martxoak 28, asteartea, 6etan

BATXILERGO OROKORRA

Apirilak 4, asteartea, 6etan



Zatoz HEZIBIDEk antolatutako saio informatiboetara!!

HEZIBIDE. 136 Posta Kutxa Aretxabaleta

Telefonoa: 79 31 32 • Faxa: 79 79 22

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

Nissan Terrano II-rekin horizontea
inoiz baino gertuago izango duzu



MODELOAK:

- TERRANO
- NUEVA VANETTE
- SERENA
- PRIMERA
- SUNNY
- MICRA

*3 urteko garantia
modelo guztietan!!*

San Lorentzo Industrialdea
Amillaga, 22 BERGARA ☎ 76 17 35



*Erakusketa, salmenta eta
erreparazioa*



ZERBITZU OFIZIALA



Nissan Micra